



Txapelketan parte hartuko duten bertsolarietako hamalau, igandean, Gasteizen. JAIZKI FONTANEDA / FOKU

# Arabako Bertsolari Txapelketako finala Europa biltzar jauregian izango da, martxoaren 28an

→ Lehen saioa Oionen egingo dute, otsailaren 7an. Lehen faseko beste bi saioak Laudion eta Izarran izango dira, eta finalurrekoak, berriz, Dulantzín eta Aramaion.

Finalurrekoetara hamabi pasatuko dira, eta finalera, sei. Lau dira 2024ko txapelketan parte hartu ez zuten baina aurtén arituko diren bertsolariak: Andere Arriolabengoa, Hegoi Amabizka, Manu Bendala García-Donas eta Sabin Abarrategi.

Guztira sei saio izango dira. Lehen fasean, hiru: Oionen otsailaren 7an, Laudion otsailaren 15ean eta Izarran otsailaren 21ean. Lehen finalurrekoa, berriz, Dulantzín izango da, martxoaren 7an, eta bigarrena, Aramaion, martxoaren 14an. Saio guztiak 18:00etan hasiko dira, finala izan ezik. 17:30ean ekingo diote finalari. Sarrerak ostegunean jarriko dituzte salgai, [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean.

Igandeko aurkezpen ekitaldian izan ziren txapelketan parte hartuko duten bertsolari gehienak, baita Arabako Bertsotzale Elkarteko kideak ere.

Egoitz Iradier elkarteko sustapen arduradunak eta Uxue Diaz de Zerio sustapen eragileak hartu zuten hitza, eta hizpide izan zuten, besteak beste, Arabako Bertsolari Txapelketak zer bide egin duen 1982. urteitik, lehenen-eko aldiz jokatu zenetik. ●

## Paulo Ostolaza

Badator Arabako Bertsolari Txapelketa. Igandean aurkeztu zuten, Gasteizko Izaskun Arrue kultur-gunean, eta han eman zuten nobedadeen berri: azken txapelketako finala, 2024koa, Gasteizko Principal antzokian egin zuten, baina oraingoan, 2022an bezala, Europa biltzar jauregiko Almuena Cid aretoan abestuko dute Arabako bertsolaririk onenek, martxoaren 28an.

Hemezortzi bertsolarik hartuko dute parte txapelketan: 2024ko Arabako Bertsolari Txapelketako finalean kantatu eta izena eman duten lau finalistek —Manex Agirrek eta Paula Amilburuk ez dute parte hartuko aurtén—, 2025eko udazkeneko sailkapen faseko saio bakoitzeko irabazleek, eta puntuazioaren arabera lehenengo hamalauen artean sailkatu ziren bertsolariek.

# 57 bertsolari taldek eman dute izena Gipuzkoako taldekako txapelketan

- Lehen fasean ia ehun saio izango dira Gipuzkoa osoan barrena, martxoaren 28ra bitarte.
- Maiatzaren 30ean jokatu da finala, Aiako probalekuan.

dute, baina taldean kide gehiago ere izango dira, talde bakoitzak gai jartzaile bat eta epaile bat izan beharko baitituzte, bai eta bilketa, komunikazio eta antolaketa lanetarako ordezkari bana ere.

Lau fase izango ditu Herriarte-koak. Lehen fasea urtarrilaren 18tik martxoaren 28ra bitarte izango da, aipatutako eskualdeetan. Fase horretan, herri eta eskualde bakoitzak bere ahalekin arabera antolatuko ditu saioak, errealtate linguistikoari eta tokian tokiko ezaugarriei erreparatuz. Belaunaldiarrekotasuna eta bertso eskolen saretzea helburu garrantzitsuenen artean ditu txapelketa horrek, eta, horri begira, oholtzara lehen aldiz igoko diren ia berrogei bertsolari izango ditu.

Finala maiatzaren 30ean jokatu da, Aiako probalekuan. Bertso bazkariaren formatua izango du. Azken faseetarako txartelak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian izango dira salgai, martxoan. ●

## Garbiñe Ubeda

Gipuzkoako taldekako txapelketak hirugarren aldiz izango du aurtengoa, eta inoiz baino jendetsuagoa izango da: 57 taldek hartuko dute parte, guztira 350 lagunek. Zortzi eskualde bereizi dituzte lehen fasearako: Buruntzaldea, Urola, Urola Kosta, Debabarrena, Debagoiena, Tolosaldea, Goierrri, Donostia eta Oarso-Bidasoa. Talde bakoitzak bost partaide izango ditu, gutxienez. Saioetan talde bakoitzeko hiru edo lau bertsolarik abestuko

# VI. BERTSO SARIKETA AIXITA 2026

Urtarrilak 25, igandea, 17:00etan  
KULTUR ETXEA - IRURTZUN



El Jartzelec: Zigor Gantxo Arregi 'Zion'



## Lehen Faseko saioetan ariko diren bertsolariak

Oionen, otsailaren 7an. Aroa Arrizubieta, Felipe Zelaieta, Iñaki Viñaspre, Martín Abarrategi, Sabin Abarrategi eta Unai Anda.  
Laudion, otsailaren 15ean. Aitor Ugarte, Andere Arriolabengoa, Ekaitz Samaniego, Hegoi Amabizka, Manu Bendala eta Peru Abarrategi.  
Izarran, otsailaren 21ean. Asier Otamendi, Danel Herrarte, Eli Zaldúa, Maddi Agirre, Rikardo Gonzalez de Durana eta Xabi Igosa.